



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 28a

45. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan jakiteko ea zer kome-
ni den, Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo eraikina mantentzea ala berri bat egitea, eta instalazioen
baldintza duinak ziurta ditzan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamente-
taldeek aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako
Zentroa beste leku batera eraman dezan. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta
Izquierda-Ezkerra parlamente-taldeek aurkeztu dute (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako landa
eremuetako populazioaren beharrezanez buruzko ebaluazioa aurkez dezan, osasun-arretari eta osasun-arre-
ta jarraituaren ereduaren inefizientziei dagokienez, bai eta funtzionamenduari buruzko plana ere. Bildu-
Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamente-taldeek aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun
Ministerioarekin sina dezan erkidegoen arteko deribazio-protokoloa, genero indarkeria pairatzen duten
emakumeei zuzendua. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lesakako liburutegi berria abian jartzeko al-
tzariak jar eta finantza ditzan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamente-taldeek aurkeztu dute
(10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Amazabal Institutua izenda dezan, Biurdana
Institutuaren ordeztu, Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziazko ikastetxe. Socialis-
tas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamente-taldeek aurkeztu
dute (11. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Palestinako herritarrei, oro har, eta Palestinako errefuxiatuei, bereziki. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes berresten baitio Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legeari. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herriaren sentimena eta borondatea adierazten baititu, Espainiako Gobernuak lehendakari ohi Adolfo Suárez González jaunaren heriotza dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren jokabidea, Ebroko Konfederazio Hidrografikoko lehendakariak Parlamentuan agerraldia egitea eragotzi baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak osatutako batzorde mistoari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Nafarroako 2013-2015 urteetarako Ekintzaitza Planari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (16. or.).
- Galdera, “Enplegurako 2014ko diru-laguntza publikoak ematea enplegurako Lanbide Heziketaren azpistemaren esparruan, batez ere langabeei eta Gazteen Bermearen kolektiboari zuzenduta” deialdiari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (16. or.).
- Galdera, 2013ko ekitaldian betearazitako kontusail izendunei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (17. or.).
- Galdera, Pablo Sarasate Kontserbatorioari, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Tuterako Fernando Remacha Musika Eskolari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egin (18. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko 2013tik 2016ra bitarteko Estrategia Nazionalerako Nafarroako Gobernuak jarriko duen aurrekontuari eta proposatuko dituen neurriei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (18. or.).
- Galdera, 2013ko BEZaren doikuntzen diru-bilketan BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra geroratzeko erabakiaren eraginari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak, urtarilaren 29an Batzordeak egindako saioan, eman zuen informazio baten interpretazioari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Lehendakaritzaren ebazpena, Parlamentuko batzordeen bilkura arruntetako eta lan bileretako agerraldiak urgentziagatik bertan behera uzteari buruzkoa (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Eloy Villanueva Cruz jaunak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez, arau-testu bakar batean bildu zituen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuarekin zerikusia zuten lege-mailako xedapenak. Testu hori martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legearen bidez onetsi zen.

Legegintzako foru dekretu horrek bere hirugarren artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langile izanen dira funtzionario publikoak, behin-behineko langileak eta langile kontratudunak; azken horiek bi motatakoak izan daitezke: administrazio araubidekoak nahiz lan araubidekoak.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 40. artikuluko bigarren idatz-zatian hiru mota bereizten ditu oinarrizko ordainsari pertsonalei dagokienez: soldata, gradua eta antzinatasuna, eta orobat zehazten du oinarrizko ordainsari pertsonalak funtzionario izaerari datzekion eskubide eskuratu bat direla.

Ordainsari-erregulazio hori, ordea, ez dator bat ez Europako Erkidegoko araudiarekin, ez jurisprudentziarekin. Alde hori administrazio-araubideko kontratudunen kasuan gertatzen da bereziki, horien ordainsarrietan ez baita gradurik jasotzen.

Egoera hori egiazta daiteke baldin eta 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren edukia erkatzen badugu azken urteotan zehar instantzia

ezberdinek, baita europarrek ere, emandako epai judizialekin eta Europako araudiarekin.

Hor da 1999/70/CE Zuzentaraua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak –EBJA– 2010eko abenduaren 22ko epaia emateko oinarri hartu zuen lege-testua, zeinaren bidez ezarri baitzen iraupen jakin bateko kontratua duten langileei ezin zaiela eman langile finkoei baino tratu okerragorik, iraupena ezberdina izate hutsagatik.

Irizpide hori bera baliatu zuen Méridako Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak, bere epaiak honako hau ondorioztatzen baitu: “erabat aplikagarriak dira Europako Erkidegoko araudia eta EBJA-ren epaia; hartara, diskriminatzailetzat hartu behar da bitarteko langileei, bitartekoak izate hutsagatik, seiurtekorik ez ordaintzea.”

Auzitegi Gorenak Méridako epaitegiaren epai hori berretsi zuen 2012ko urriaren 22an, Fiskaltzako kasuan defendatutako jarrera ere jasotzen zuen epai batean:

“Méridako Epaitegiaren epaiak ezarritako doktrina ez da okerra; izan ere, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 10.5 artikulua (LBK 2007, 768) karrerako funtzionarioen eta behin-behinekoren arteko tratu-berdintasunaren printzipio orokorra ezartzen du, halako moduan non azken horiek berariazko osagarriaren barrenean prestakuntza etengabearen osagarria jasotzeko duten eskubidea ez baita antolamendu juridikoaren aurkakoa, batik bat arau hori Europako araudiaren argitan interpretatzen bada: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiaren bidez aplikatutako 1999/70/CE Zuzentaraua.”

Ildo berean, Auzitegi Gorenak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2012ko otsailaren 9ko epaia dakar gogora, zeinak hauxe baitio:

“bitarteko funtzionarioak karrerako funtzionarioen egoera bertsuan daude, ez baitzen azken horiekiko alderik agerian jarri ez kualifikazio akademikoari ez esperientziari dagokionez ere. Esparru-akordioaren 4. klausulako 1. idatz-zatiko “arrazoi objektiboen” kontzeptuak ez du justifikatzen tratu ezberdina ematea iraupen jakin bateko

kontratua duten langileei eta langile finkoei, hori arau nazional orokor eta abstraktu batean –lege bat edo hitzarmen kolektibo bat– aurreikusita egoitearen arrazoiagatik (...)”

Eta Auzitegi Gorenak honako hau gehitzen du bere epaian:

“Administrazio publikoko langileen zerbitzu-harremana aldi baterako izate hutsaren aipamena ez dator bat betekizun hauekin, eta, hortaz, ezin da izan, berez, arrazoi objektibo bat izan, Esparru-akordioaren 4. klausulako 1. idatz-zatiko zentzuan (...)” Lan-harreman bat aldi baterako izate hutsa halako alde bat justifikatzeko aski izatea onartzeak edukirik gabe utziko lituzke 1999/70 Zuzentarauaren (LCEur 1999, 1692) eta Esparru-akordioaren helburuak. (...) Berez ezin dira halako arrazoi objektibotzat hartu beren horretan ez zenbait langile publikoren zerbitzu-harremanaren aldi baterako izaera, ez eta araudi nazionaleko xedapenik eza behin-behineko langileen kategoria batzuei auzi nagusian eztabaidagai diren seiurtekoak ordaintzeari buruz (...)”

Europako erkidegoan aplikatu beharreko araudia eta epai judizial ezberdinak ikusita, egoki da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea.

Horregatik guztiagatik, honako foru lege proposamen hau aurkezten dugu, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa.

Artikulu bakarra.

Bat.

93. artikulua aldatzea. Hona testua:

“Administrazio-araubideko kontratuak dituzten langileei erregelamendu bidez ematen diren xedapenak eta kasuan kasuko kontratuan ezarritakoa aplikatuko zaizkie.

88. artikuluko b) eta c) letren arabera kontratatutako langileek funtzionario publikoen ordainsari berberak edukiko dituzte.”

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan jakiteko ea zer komeni den, Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo eraikina mantentzea ala berri bat egitea, eta instalazioen baldintza duinak ziurta ditzan.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan jakiteko ea zer komeni den, Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo eraikina mantentzea ala berri bat egitea, eta instalazioen baldintza duinak ziurta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Beriaingo ikastetxe publikoa hezkuntzaren kalitatearekin konprometitutako ikastetxea da, baina bizitzen ari den zailtasunek zailagoa egiten dute bere lana. Zailtasun horietako bat da plantillaren ezegonkortasun handia –langileen % 60tik goiti–; eta beste bat, ikastetxea hartzen duen eraikin zaharkitua. Eraikinak, zeina 1972an eraiki baitzen,

eta 1980an handitu, gabezia ugari ditu: funtzionalak, eraikuntzakoak eta instalazioen arlokoak.

Azken urteotan –2007tik 2010era– inbertsio handiak egin dira. 680.000 euro baino gehiago inbertitu dira, eta Udalak diru ia % 60an parte hartu du. Bereziki azpimarragarriak dira berokuntza-arazoak; izan ere, ez dira konpondu, kontraleihoetan nahiz galdara berria jartzen egindako inbertsioak gorabehera. Zaila da arazo horri konponbide bat aurkitzea: isolamendua oso txarra da, pasabideak luzeak, eta erradiadoreak gutxi dira, zaharrak eta eraginkortasun gutxikoak. Hori dela eta, gehiegizko gastua egiten da, eta eraginkortasunik gabea, berokuntzan.

Gimnasioa zaharra da, hotza, eta sonoritate-arazo larri bat dauka; ondorioz, ezin da patio gisa erabili egun hotz eta euritsueta. Komunak ere oso zaharrak dira, lurra hondatuta dago, ontziak arkaikoak dira eta iturgintza eskasa da. Instalazio elektrikoa gaizki dago, eta horrek arazo larriak eragin litzake edozein unetan.

Ez dago gela nahikorik, eta ekipamenduak, oro har, hausturak ditu etengabe –alikatatuan, zoladuraren, altzarietan, eta abarretan–; halatan, mantentze-lanak garestiak dira, eta ez dira eraginkorrak.

Hezkuntza Batzordeak ikastetxera egindako bisitan ikusi ahal izan genituen ikastetxeko familiek orain dela asko salatzen hasi ziren gabezia horiek guztiak.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan 3 hila-

beteko epean, jakiteko ea egungo eraikina mantendu behar den, ala ikastetxe berri bat eraiki behar den eta, edozein kasutan, egitea erabakitzen den jarduketan egutegia ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du instalazioen egoera duin bat berma dezan, zein ere diren egiten den azterlanaren

ondorioak, Beriaingo ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanaz.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Foru parlamentariak: Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa beste leku batera eraman dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa beste leku batera eraman dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala Konpainia kaleko lokaletan jarri zen 1984an. Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari lagatako eraikina osorik okupatu zuen, eskolaren etorkizuneko egoitza izan zedin.

1990etik 2000ra bitarte, IHEOk orain NHAG-Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneak hartzen dituen honako espazio hauek erabili zituen:

- Ikasketa gela
- Liburutegia-irakurketa gela
- Itxarongela
- Mintza taldeetarako gelak
- Hizkuntza berrietarako gelak
- Irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak antolatzea

2000an CNAI eratu zen, eta Hezkuntza Departamentuak erabaki zuen eraikinaren beheko solairuan paratzea bere egoitza. Espazio hori galtzeak berekin ekarri zuen bi gela kentzea baliabide gela sortzeko, zeina gaur egun txiki geratu baita.

2009tik aitzina –NHAGk urte horretan aldatu zuen bere irakaslan–, lokal horiek ia administrazio-lanetarako soilik erabili dira. Harrezkero, Eskola Kontseiluak, klaustroak, zuzendaritza taldeak eta abarrek behin eta berriro eskatu dute espazio hori berreskuratzea, eskaintzen duten zerbitzua hobetzeko hartara eta honako helburu hauek lortu ahal izateko:

1. Segurtasuna. Atezaintza Compañía Plazako sarreraren ondoan jarriz gero, behar bezala kontrolatzen ahalko da sarbidea.

2. Lehen solairuko bi gela berreskuratzea; hain zuzen ere, baliabide gela han jarri behar izan zenean galdutakoak. Hartara, zenbait hizkuntzako hezkuntza-eskaintza handitu ahalko da.

3. Baliabide gela handitzea. Baliabide gela eta multimedia gela txiki geratu dira, eta beheko solai-

rura eramanez gero beren erabilera hobetu eta handitu ahalko da.

4. Mandarin-txinera ezartzea seigarren hizkuntza ofizial gisa; gela bat behar da hizkuntza hori irakatsi ahal izateko.

5. Moduluen, mintza taldeen, eskolaz kanpoko tailerren eskaintza bultzatzea; jarduera horiek egin ahal izateko, beharrezkoa da gela txikiak prestatzea.

Horregatik guztiagatik, IHEOren eskaria gure eginez, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gunea beste leku batera eraman dezan, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak 2014-2015 ikasturtean bere hezkuntza-eskaintza handitu ahal izateko erabili ahal izan ditzan lokal horiek.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako landa eremuetako populazioaren beharri buruzko ebaluazioa aurkez dezan, osasun-arretari eta osasun-arreta jarraituaren ereduaren inefizientziei dagokienez, bai eta funtzionamenduari buruzko plana ere.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen baita Nafarroako landa eremuetako populazioaren beharri buruzko ebaluazioa aurkez dezan, osasun-arretari eta osasun-arreta jarraituaren ereduaren inefizientziei dagokienez, bai eta funtzionamenduari buruzko plana ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean,

ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legearen zioen azalpenean honako hau esaten da, besteak beste:

“Abenduaren 19ko 131/2012 Foru Dekretuak (LNA 2013, 14), oinarrizko osasun laguntzako osasun zentroen, arreta jarraituko eta larrialdiko arretako guneen eta arreta jarraituko eta larrialdiko arretako modalitateen ordutegia eta funtzionamendua arautzen dituenak, lehenengo aldiz dakar Nafarroako herritarrei eskainitako osasun-arretan atzera egitea; izan ere, landa eremuko populazioarentzako eta erkidegoaren bide-sarerako egungo larrialdi-sistema eraistea dakar. Arau horrek nahasi egiten ditu osasun-arreta jarraitua eta larrialdikoa, nahasi egiten baititu zeharo ezberdinak diren arazoak eta beharriak, eta okertu egiten du Nafarroako herritarrentzat ezarritik joan den prestazio-maila, ondokoen bidez ezarria: aipatu 10/1990 Foru Legea (LNA 1990, 278), Nafarroako errepideko osasun garraioa arautzen duten otsailaren 10eko 29/1997 (LNA 1997, 91) eta otsailaren 7ko 8/2011 (LNA 2011, 60) foru dekretuak, Ospitalez kanpoko larrialdietako osasun laguntza Nafarroako Foru Komunitatean arautzen duen azaroaren 24ko 343/1997 Foru Dekre-

tua (LNA 1997, 418) eta Landa eremuan larrialdi medikoen zerbitzuak antolatzeko ereduari buruzko Akordioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta sindikatuek 2008ko martxoan lortutakoa.

Foru dekretu horren aplikazioak arriskuan jar-tzen du landa eremuetan bizi diren pertsonen eta Nafarroako bide-sareko erabiltzaileen segurtasuna, ustez kostuak aurrezteko justifikazio bakarrarekin, zeina, bestalde, ez baita erreala. Alferrik galdu da eredu eraginkorragoak eta, aldi berean, efizienteagoak aztertzeko aukera, landa eremuan bizilarialdien arreta hobetzen jarraitu ahal izatekoa. Argi dago landa eremuko oinarritzko laguntzaren eta larrialdikoaren egungo ereduak baduela zer hobetu, baina 131/2012 Foru Dekretuak (LNA 2013, 14) ez du horretan laguntzen; aitzitik, ekitate printzipioen aurka doa herritar guztiek osasun-sisteman sarbidea berdintasunez izateko baldintzei dagokienez, kudeaketaren deszentralizazioari eta parte-hartzeari dagokienez, osasun-arretaren kalitateari eta humanizazioari dagokienez eta erkidegoaren parte-hartzeari dagokionez, zeinak Osasunari buruzko Foru Legeko 4. artikuluan jasutzen baitira.”

Halaber, 2/2013 Foru Legeko artikulua bakarrak hauxe dio hitzez hitz:

“1. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak Nafarroako landa eremuetako populazioaren beharrezan buruzko ebaluazio bat egingen du, osasun-arretari eta osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoaren ereduaren inefizientziei dagokienez, eta oinarritzko osasun-laguntzako osasun-etxeen eta osasun-laguntza jarraitu eta larrialdikoaren modalitateen funtzionamenduari buruzko plan bat taxutuko du osasun arloko profesionalen, toki enti-

tateen eta arlo horrekin zerikusia duten eragile sozialen parte-hartzearekin, eta ahal den adostasunik handiena bilatuko du.

2. Nafarroako Gobernuak gehienez ere urtebeteko epean igorriko du aipatu plan hori Nafarroako Parlamentura, eztabaidatu eta onesteko.”

Gaur den egunean, Osasun Departamentuak ez du 2/2013 Foru Legearen edukia bete, eta Parlamentu honetan aurkeztu den gauza bakarra da gehiengo sindikalarekin adostu ez den akordio sindikal bat.

Orobat onetsi da adierazpen instituzional bat –2014ko martxoaren 17an–, zeinean Parlamentuak erreibindikatu baitzuen lege horretan xedatuari jarraikiz eskubidea daukala Osasun Departamentuak Parlamentura ekarri beharreko funtzionamendu-plana eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hori dela-eta, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkeztzen dute:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroako landa eremuetako populazioaren beharrezan buruzko ebaluazioa aurkez dezan, osasun-arretari eta osasun-arreta jarraituaren ereduaren inefizientziei dagokienez, bai eta funtzionamendu-plana ere, mozio hau onesten denetik hasita 15 eguneko epean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 19an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Asun Fernández de Garaialde eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin sina dezan erkidegoen arteko deribazio-protokoloa, genero indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendua.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin sina dezan erkidegoen arteko deribazio-protokoloa, genero indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan erkidegoen arteko deribazio-protokoloa, genero indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendua.

Espainiako Gobernuak Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Estrategia Nazionala onetsi zuen 2013ko uztailan. Dokumentu horretan 260 neurri inguru jasotzen dira, 2013tik 2016ra bitarte tratu txarrei aurre egitera bideratuak. Autonomia erkidegoek estrategia hori berretsia zuten lehenagotik; hain zuzen ere, ekainaren 17an egindako Berdintasun Konferentzia Sektorialean.

Estrategia zenbait arlotan egituratuta dago: prebentzioa, tratu txarren detekzioa, sen-

tsibilizazioa, arreta pertsonalizatua, administrazioen eta erakundeen arteko koordinazioa eta talde ahulenendako laguntza –bereziki adingabek eta emakume etorkinak, nagusiak, ezgaitasuna duten pertsonak edo landa eremuetako biztanleak–.

Aurrekontu-esleipena 1.530 milioi eurotik goitiko da; 1.200, ukitutako ministerioek jarriak dira; eta gainerakoa, autonomia erkidegoek.

Gainera, genero indarkeriaren aurkako Espainiaren estrategia adostasun-esparru batean taxutu da, bertan parte hartu baitute autonomia erkidegoek, toki entitateek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta emakume-elkarteak.

Estrategiaren sei ardatzetako bat da erakundeen arteko koordinazioa, zeinak, besteak beste, Harrera-etxeen Sare Nazionala jasotzen baitu. Erkidegoen arteko deribazio-protokolo batek arautzen du etxeen sare horren funtzionamendua. Horren arabera, destino bat ala beste erabakitzeke, kasuko emakumearen inguruabarrak aintzat hartuko dira, eta, batez ere, kasurik larrienak gehienez ere 24 orduan bideratzeko modua egonen da.

Genero indarkeriaren aurkako estrategia nazionala sinatu duten autonomia erkidegoak konprometitu ziren Harrera-etxeen Sare Nazionalari atxikitako deribazio-protokolo bat sinatzera lau hila-betean; hain zuzen ere, autonomia erkidegoek beren emergentzia-zentroak, harrera-etxeak eta tutoretzapeko pisuak jartzen dituzte sarearen esku.

Horregatik guztiagatik, Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin sina dezan erkidegoen arteko deribazio-protokoloa, genero indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendua.

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lesakako liburutegi berria abian jartzeko altzariak jar eta finantza ditzan.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lesakako liburutegi berria abian jartzeko altzariak jar eta finantza ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nabai parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Gaur, osteguna, martxoak 20, Lesakako Kultur Etxera egindako parlamentu-bisitan, parlamentu-

taldeok instalazio horiek ezagutu ahal izan ditugu; horien artean nabarmendu daiteke liburutegia, zeina une honetan ez baitago erabilgarri, ez daukalako behar den altzaririk (apalategiak, mahaiak, aulkiak...).

Egungo liburutegiak ez ditu betetzen halako erabilera duen instalazio batek izan beharreko ez irisgarritasun ez segurtasun baldintzak. Egurrez egina egoteak beste arrisku gehigarri bat dakar, eta, zalantzarik gabe, egun baimen bat lortu beharko balu abian jartzeko, ez luke halakorik jasoko.

Hori dela-eta, egungo liburutegiaren egoera prekario eta arriskutsua ikusita, eta liburutegi berria jada eraikita dagoenez eta behin betikoz abian jartzeko kasuko altzariak erostea bakarrik falta denez, parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lesakako liburutegi berria abian jartzeko behar diren altzariak jar eta finantza ditzan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Nekane Pérez Irazabal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Amazabal Institutua izenda dezan, Biurdana Insitutuaren ordez, Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziatzko ikastetxe.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Amazabal Institutua izenda dezan, Biurdana Insitutuaren ordez, Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziatzko ikastetxe.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Lekunberriko eta Larraungo biztanleek Lekunberriko Ibarberri ikastetxera bidaltzen dituzte Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko haurrak.

Martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretuaren arabera, berriz, Leitzako 7. barrutian dago Larraungo ikastetxearen –egun Ibarberri deitzen denaren– erreferentziatzko ikastetxea, DBHko bigarren ziklorako eta Batxilergorako. Zehazki, Amazabal Institutua da.

Urtebete geroago, martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuak ikastetxe horri zegokion erreferentziatzko ikastetxea aldatu zuen, eta Iruñeko 15. barrutian ezarri zuen; hain zuzen ere, Biurdana Insitutuan.

Foru dekretu horiek zenbait irizpide ezartzen dituzte Nafarroako eskola-mapa ezartzeko; esate baterako:

a. Ikasleen ikastetxearekiko hurbiltasuna.

b. Dauden espazio, instalazio eta ikastetxeen erabilera optimoa.

c. Hizkuntza-errealitatea eta errealitate sozio-geografikoa.

d. Funtsezkotzat jotzen da bermatzea irakaskuntzaren kalitatea eta eskueran dauden giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala aprobetxatzea.

Irizpide horien arabera, Leitzako Amazabal institutua da, argi eta garbi, Ibarberri ikastetxeari dagokion erreferentziatzko ikastetxea.

Administrazioak ahalegin bat egiten ari dira landa eremuen garapena bultzatzeko, eta erreferentziatzko ikastetxea Amazabalen ezartzeak sendotu egiten ditu dauden baliabideak eta bultzatu egiten du eskualdearen garapena; izan ere, hori da eskualdean dagoen institutu bakarra.

Gainera, badira beste argudio batzuk erreferentziatzko ikastetxea aldatzeko:

a- Amazabal institutuaren hurbiltasuna, horrek esan nahi duen guztiarekin: denbora gutxiago errepidean, arrisku txikiagoa, hain goiz altxatu behar ez izatea, eskola-garraioaren gastua murriztea, eta abar.

b- Errealitate soziolinguistikoa.

c- Ingurune murriztuago eta gertuagoko batek familiei ematen dien segurtasuna, 14 urtetik gorako gazteak direla kontuan izanik.

d- Biurdana institutuaren egungo egoera, espazio arazoa baitauka, Hezkuntza Batzordean ordezkaturata dauden talde politiko guztiek dakiten bezala.

e- Amazabal institutuak behar adina toki dauka Ibarberri ikastetxeko ikasleak hartzeko.

f- Larraungo eta Lekunberriko familia gehieneko joera da beren seme-alabak Amazabalen matrikulatzea, nahiz eta gaur egun beren erreferentziatzko ikastetxea ez izan.

Bestalde, auzi hau dela-eta izan ditugun lan bileretan argi gelditu da beste arazo bat ere bada-goela, zenbaitetan honekin uztartzen eta nahasten dena: derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako ikasketak egiteko garraioaz ari gara.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 5.5 artikuluan esaten denez –LOMCEk ez du hori aldatu–, “hezkuntza sistemak erraztu behar du eta administrazio publikoek sustatu behar dute herritar guztiek derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etaparen mailako prestakuntza edo horren baliokidea eskuratzera iritsi daitezen”. Bestalde, 80. artikulua administrazioei eskatzen die –erreformak hori ere ez du aldatu– konpentsaziozko ekintzak gara ditzatela egoera ahulean dauden lurralde esparruekin, horretarako behar diren baliabide ekonomikoak eta laguntzak emanez. Askok eta askotarikoak dira ikasle guztientzat beharrezkoa eta galdagarria den aukera-berdintasunari buruzko aipamenak. Hala, aipamen guztietan azpimarratzen da baliabideak emateko eta aukera-berdintasuna gauzatzeko beharra, bai eta edozein faktoreren ondorioz, geografikoa barne, sortzen diren desberdintasunak ekiditeko beharra ere.

Onartzen baldin bada ere Hezkuntza Departamentuak ezin duela bere gain hartu zerbitzuen eskaintza egokia egitea, bidegabekia eta aukera-berdintasunaren printzipioaren guztiz aurkakoa da ikasle horientzat ez egotea inolako laguntza

berezirik garraiorako edo egoitzarako, oro har ikasle guztientzat daudenez gainera. Ukaezina da

familien bizitokia eta lan egiteko tokia aukeratzeari buruzko erabaki asko seme-alabentzako dauden hezkuntza- eta prestakuntza-aukeren arabera hartzen direla, eta erabaki horiek zuzenean lotuta daudela, halaber, aukera horiek dakartzaten kostu ekonomikoekin. Halatan, arazo honi konponbide bat emanez gero, populazioa finkatu eginen litzateke despopulazio-arrisku handia daukaten eremuetan.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Amazabal Institutua izenda dezan, Biurdana Institutuaren ordean, Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziazko ikastetxe.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekitatea eta aukera-berdintasuna berma ditzan Nafarroako lurralde guztietan, ikasle guztiei emanez derrigorrezkoaren ondoko ikasketak egiteko aukera, beren bizilekua zein ere den, dagoen eskola-garraioa antolatuz eta aprobetxatuz edo, kasua bada, garraiorako eta egoitzarako laguntzak edo dirulaguntzak ezarriz.

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Palestinako herritarrei, oro har, eta Palestinako errefuxiatuei, bereziki.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Palestinako herritarrei oro har eta Palestinako errefuxiatuei bereziki, eta aitortzen du eskubidea dutela haien herrira itzultzeko eta bizi duten egoera bidegabeari konponbide zuzen eta iraunkor bat emateko.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du nazioarteak egindako deiarekin, nazioarteko eskubide humanitarioa errespetatu dadin eta Nazio Batuen agentziei eta GKE-ei bide eman dakien laguntza humanitarioa banatzeko eta Siriako populazio zibilari laguntzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Gazako zerrendaren gaineko blokeoa buka dadin,

laguntza humanitario guztia jaso ahal izan dezaten eta pertsonen nahiz merkantzien joan-etorria oztoporik gabe egin ahal izan dadin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua nahiz erakunde publiko eta pribatuak premiatzen ditu UNRWArri laguntzen jarrai dezan.

5. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau Kanpo Arazo- etako Ministerioaren bidez igor dezan Israelgo, Siriako, Libanoko, Jordaniako, Gazako zerrendako eta Zisjordaniako erakunde eskudunei, eta dei egiten die hartutako konpromisoak bete ditzaten eta Palestinako herriaren giza eskubideak ez urratzea berma dezaten, Palestinako herria azken akordio orekin parte integraltzat hartu behar baita.”

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes berresten baitio Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legeari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes berresten dio Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legeari, eta urgentziarik handienarekin aplikatu ahal izateko premia dagoela adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du PPren Gobernuak erretiratu egin behar duela Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legearen aurka Konstituzio Auzitegian jarrita daukan errekurtoa.”

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herriaren sentimena eta borondatea adierazten baititu, Espainiako Gobernuako lehendakari ohi Adolfo Suárez González jaunaren heriotza dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herriaren sentimena eta borondatea adierazten ditu, Espainiako Gobernuako lehendakari ohi Adolfo Suárez González jaunaren heriotza dela-eta; hartara, honako hau erabaki du:

1. Bere nahigabea adieraztea eta doluminak helaraztea Suárez Illana familiari.

2. Onartzea Adolfo Suárez jaunak egindako ekarpena demokrazia, zuzenbide estatua eta askatasun-sistema bultzatzeko eta sendotzeko; hain zuzen ere, espainiar guztiok geure buruari eman diogun bizikidetasun-esparrua definitzen duten horiek.

3. Bere figura nabarmentzea, jarrera demokratikoen eredu eta interes komunaren, elkarrizketaren, konkordiaren eta tolerantziaren defendatzaile izan den aldetik; izan ere, balio horiek parlamentu-erakundearen oinarrian daude eta ordezkari publikoen eta agintarien jardunaren gidari izan behar dute.

4. Bat egitea doluarekin eta gizarteak eta erakundeek Suárez lehendakari ohia behar bezala ohoratzeko egindako omenaldiarekin. Foru Parlamentuko sarrera nagusian dauden banderak masta erdian egonen dira, dolu ofizialaren seinale. Heldu den martxoaren 27an, ostegunetz, eginen den Osoko Bilkuraren hasieran minutu bateko isilunea gordeko da, haren gomutan eta omenez”

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren jokabidea, Ebroko Konfederazio Hidrografikoko lehendakariak Parlamentuan agerraldia egitea eragotzi baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Alba Orduna andrearen jokabidea, eragotzi egin baitu Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakariak agerraldia egitea Parlamentuan heldu den 25erako jada deitutako bilkura batean.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak berriro ere erdeinatu duela Parlamentua eta, kasu hone-

tan, baita Esako urtegiko jarduketek ukitutakoak ere.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die ukitutako pertsonei, eta onartezintzat jotzen du jasan behar duten ziurgabetasuna, bai eta Espainiako Gobernuak gai honetan darabilen opakutasuna ere, ondorio larri-larriak izaten ari dena alderdi horretan bizi diren pertsontzat.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du adierazpen hau Espainiako Gobernuari jakinaraztea”

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak osatutako batzorde mistoari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak osatutako batzorde mistoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkezten dizkio Lehendakari, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

- Zenbat aldiz eta non bildu da EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak eraturako batzorde mistoa? Zer pertsonak, bai alde batekoak, bai bestekoak, hartu dute parte bilera horietan? Zer akordiotara iritsi dira? Zer gai jorratu dira?

- Aurreikusita al dago laster beste bileraren bat egitea? Nafarroako Gobernuak ba al du halakorik bultzatzeko asmorik?

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Nafarroako 2013-2015 urteetarako Ekintzailtza Planari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako 2013-2015 urteetarako Ekintzailtza Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Gobernuak 2012ko urrian aurkeztutako Nafarroako 2013-2015 Ekintzailtza Planari dagokionez:

– 2013ko ekitaldiko aurrekontua: planean jasotako aurrekontua, hasierako aurrekontua eta betetako aurrekontua.

– 2013an garatutako jarduketak, aurrekontuaren arabera xehakaturik, planean jasotako lau arloak, parte-hartzaile kopurua, garatutako enpresak eta jarduketa horiek direla-eta sortutako enpleguak.

– Nafarroan 2012an eta 2013an ezarritako enpresen kopurua.

Iruñean, 2014ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, “Enplegurako 2014ko diru-laguntza publikoak ematea enplegurako Lanbide Heziketaren azpisistemaren esparruan, batez ere langabeei eta Gazteen Bermearen kolektiboari zuzenduta” deialdiari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, “Enplegurako 2014ko diru-laguntza publikoak ematea enplegurako Lanbide Heziketaren azpisistemaren esparruan, batez ere langabeei eta Gazteen Bermearen kolektiboari zuzenduta” deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hauxe jakin nahi dut Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako otsailaren 28ko 42E/2014 Ebazpena dela-eta –enplegurako 2014ko diru-laguntza publikoen deialdia onesten duena enplegurako Lanbide Heziketaren azpisistemaren esparruan, batez ere langabeei eta Gazteen Bermearen kolektiboari zuzenduta–, zeina 2014ko martxoaren 18ko NAOan argitaratu baitzen:

– Gazteen Bermearen kolektiboari zuzendutako aurrekontua.

– Gazteen Bermearen kolektiboari zuzentzea aurreikusitako diruaren jatorria eta xehakapena –europarra, nazionala eta, kasua bada, autonomia–.

– Gazteen Bermearen kolektiboan aurreikusitako onuradun-kopurua.

– Kolektibo horretan aurreikusitako jardueramotak eta -kopurua.

– Ebazpen horretan oro har aurreikusitako jarduerakopurua.

Iruñean, 2014ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, 2013ko ekitaldian betearazitako kontusail izendunei buruzkoa.**ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 2013ko ekitaldian betearazitako kontusail izendunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2013an betetako kontusail izendunei dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

– Zer dela-eta ez zen garatu Merkataritza Ganberarekiko hitzarmena, berariazko enplegu-programak egitekoa.

– Etorकिनak laneratzeko eta gizarteratzeko UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenerako baliatutako 519.656 euroen jatorrizko kontusailak eta izendapena. Zer dela-eta ez ziren % 100 bete Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekiko hitzarmenetako kontusail hauek:

- Ekintzailatzeko, autonomoentzako eta berrikuntzako programak.

- Zuzendaritza kideen prestakuntza eta familia-enpresetako jarduketak.

– Zer dela-eta ez ziren bete kontusail hauek:

- UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, gazteei lanerako orientabideak ematekoa (93.500 euro).

- UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, ezgaitasuna duten pertsonak kontratatuzkoa (125.991 euro).

- UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, etorkinak laneratzeko.

- Leurtzaren kudeaketa.

- Iratiren kudeaketa.

Kontusail horietan hasiera batean aurreikusitako dirua beste kontusail batzuetarako baliatu baldin bada, horiek zein izan diren zehaztea eskatzen dugu.

Iruñean, 2014ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Pablo Sarasate Kontserbatorioari, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Tuterako Fernando Remacha Musika Eskolari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Pablo Sarasate Kontserbatorioari, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Tuterako Fernando Remacha Musika Eskolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Pablo Sarasate Kontserbatorio profesionalak, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Tuterako Fernando Remacha Musika Eskolak zer urtealdi-kostu izan dute azken bi urteotan funts publikoentzat eta zer urtealdi-kostu aurreikusten da aurrekontu-ekitaldi honetarako?

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko 2013tik 2016ra bitarteko Estrategia Nazionalerako Nafarroako Gobernuak jarriko duen aurrekontuari eta proposatuko dituen neurriei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko 2013tik 2016ra bitarteko Estrategia Nazionalerako Nafarroako Gobernuak jarriko duen aurrekontuari eta proposatuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko 2013tik 2016ra bitarteko Estrategia Nazionalerako Nafarroako Gobernuak jarriko duen aurrekontua eta proposatuko dituen neurriak.

Zenbatekoak urtez urte xehakaturik ematea eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, 2013ko BEZaren doikuntzen diru-bilketan BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra geroratzeko erabakiaren eraginari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari buruzkoa. Galdera 2013ko BEZaren doikuntzen diru-bilketan BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra geroratzeko erabakiaren eraginari

buruzkoa zen, eta 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak, urtarrilaren 29an Batzordeak egindako saioan, eman zuen informazio baten interpretazioari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari buruzkoa. Galdera Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak, urtarrilaren 29an Batzordeak egindako saioan,

eman zuen informazio baten interpretazioari buruzkoa zen, eta 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Lehendakaritzaren ebazpena, Parlamentuko batzordeen bilkura arruntetako eta lan bileretako agerraldiak urgentziagatik bertan behera uzteari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko –NPE– 53.1, 73.1 eta 80.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko lehendakariari dagokio, Mahaiarekin bat eta Eledunen Batzarrari entzun ostean, batzordeen bilkurak deitzea eta kasuko gai zerrendak ezartzea. Egoera arruntetan, bilkura horiek bertan behera uztea edo gai zerrenda aldatzea erregelamendu-betebeharrei jarraikiz egin beharra dago. Horrez gain, kontuan hartu behar da NPEko 80.2 artikuluan ezarritakoa: edozein parlamentu-organoren bilkuren gai zerrenda aldatzea ukitutako organoak berak.

Halere, kargu publikoek batzordeen bilkura arruntetan edo beste pertsona batzuek lan bilera batean egin beharreko agerraldien kasuan, gerta liteke –eta zenbaitetan gertatu ere gertatzen da– ustekabeko arrazoiak sortzea, zeinen arabera bilkurak ezin baitira ezarritako datan egin edo ez baita komeni data horretan egitea. Beste horrenbeste gerta daiteke interes publikoko gaiei buruzko informazioa lortze aldera programatutako bisitekin, batzuetan ezinezkoa izaten baita bisita egitea, ustekabean gertatutako arrazoiak direla-eta. Kasu horietan, urgentzia-egoerak hala eskatzen baldin badu, Lehendakaritzari eman beharreko ahalmena eman behar zaio kasuko agerraldia, bisita edo are batzordearen bilkura bera bertan behera uzteko, ezertan kaltetu gabe horren berri Mahaiari eta Eledunen Batzarrari eman beharra, egiten duten

lehen bilkuran, zeinean horri buruz hartu beharreko erabakia hartuko baita.

Horrenbestez, lehendakari honek, aldez aurretik Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartuta eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, ondoko ERABAKIA hartu du:

1. Urgentzia-kasuetan, baldin eta batzordeen bilkura arruntetan nahiz lan bileretan kargu publikoek edo beste pertsona batzuek agerraldia egitea eragozten duten ustekabeko inguruabarrak gertatzen badira, edo bilkura nahiz lan bilera ezinbestez atzeratzera behartzen dutenak, Parlamentuko Lehendakaritzak agerraldiari bertan behera utzi ahal izanen du, bai eta kasuko bilkura ere. Halaber, antzeko arrazoiengatik, bertan behera utzi ahal izanen ditu jada programatutako bisita informatiboak.

2. Baldin eta Lehendakaritzak arestiko atalean ematen zaion ahalmena baliatzen badu, Mahaiari eta Eledunen Batzarrari horren berri emanen die egiten duten lehen bilkuran, kasuko agerraldi horri buruz hartu beharreko erabakia har dadin.

3. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera